



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2015EKO OTSAILAREN 10EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Jesus Peñagarikano Labaka

Oihane Sarasola Nosellas

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2015eko otsailaren 10ean udaletxeko bilera-aretoan, eguandiko ordu batak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Jesus Peñagarikano Labaka alkate alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2015KO URTARRILAREN 21EKO AKTAREN ONARPENA

2015ko urtarrilaren 21an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2015ko urtarrilaren 21ean eginiko Gobernu batzarraren akta

BIGARRENA:

2.- 2015 EKO OTSAILAREN 4AN BURUTURIKO GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO ERABAKIAK ONARTU.

2.1 ZUZKIDURAKO BIZITOKIEN ERREGELAMENDUA. ALDAKETA PROPOSAMENA: I-10 ARRT. 2 PUNTUA 4 PARAGRAFOA.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2013ko apirilak 5an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, Euskal Herria 18-2 zenbakiko zuzkidura-bizitokietarako zerbitzu publikoa arautzen dituen erreglamendua behin-betiko bihurtuz. Erreglamendu hau, 2013ko otsailaren 6an buruturiko Udalbatza bidez onartu zen.

Erreglamendu honen I-10.2 puntuan honakoa arautzen da: Kanona urtean behin berrikus daiteke INEMen ziurtagiri baten bidez, bertan diru-sarreraren aldaketak jasoko baitira.

Ikusirik egungo egoera eta gazteen egoera ekonomikoak jasan ditzazken aldaketak kontutan izan behar direla, Gizarte Zerbitzuen Batzordeak proposatu zuen erreglamenduaren I-10.2 puntuaren idazketa aldatzea. Horrela geldituko litzateke erreglamenduko I-10.2 puntua: **“Ibarrako udalak urtean behin berrikusiko du kanona ofizioz. Berrikuste hori uztailean egingo da, errenta aitortpena bukatutakoan. Halaber, kanona urtean beste behin berrikusi ahal izango da esleipendunak hala eskatuta. Horretarako bere diru-sarreratan izandako aldaketaren inguruko dokumentazio guztia aurkeztuko du. Eskaera hori derrigorrezko berrikusketa egin eta 6 hilabetera egingo da.”**

2015eko otsailaren 4an eginiko Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea 2013ko apirilak 5an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, Euskal Herria 18-2 zenbakiko zuzkidura-bizitokietarako zerbitzu publikoa arautzen dituen erreglamenduaren I-10.2 artikulua zuzentzea honako testu honekin: **Ibarrako udalak urtean behin berrikusiko du kanona ofizioz. Berrikuste hori uztailean egingo da, errenta aitortpena bukatutakoan. Halaber, kanona urtean beste behin berrikusi ahal izango da esleipendunak hala eskatuta. Horretarako bere diru-sarreratan izandako aldaketaren inguruko dokumentazio guztia aurkeztuko du. Eskaera hori derrigorrezko berrikusketa egin eta 6 hilabetera egingo da.”**

BIGARRENGOA: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Euskal Herria 18-2 etxebizitzako gazteei jakinaraztea.

HIRUGARRENA:

3.- 2015EKO URTARRILAREN 26AN BURUTURIKO EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEKO AKTAREN INGURUKO ERABAKIAK ONARTU

3.1 TOLOSALDEKO LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO EGITASMOA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Tolosaldea eskualde euskalduna da. 2011n 47.517 biztanle zituen eta horietatik %70 euskaldunak ziren, %16 ia euskaldunak eta %13 erdaldunak. Hala ere, errealitate soziolinguistiko hau ez da islatzen lan munduan. Hori dela eta, Tolosaldeko euskara teknikariak eta euskalgintza lan mundua euskalduntzeko egitasmoa martxan jarri nahi dute.

Egitasmoaren helburua da Tolosa bezalako eskualde euskaldunean lan-mundua euskalduntzea, eta berorri aurrera eramango duen mahai iraunkor bat eratzea.

Prozesua luze joko du, enpresa gutxi batzutan hasiko da lanketa eta enpresa berriak erakartzea izango da etengabeko erronka. Enpresetan euskararen sustapen lana bideratzeko tresna edo sistema iraunkor bat sortu nahi dugu, non lan munduko eragileen parte-hartze irekia bermatuko den, non neurri eraginkorrak adostu eta bultzatuko diren.

Prozesu honetan parte hartuko duten eragileak identifikatu, beraiekin egitasmoa konpartitu, eta ondoren Tolosaldeko lan munduaren mahaia sortu nahi da.

Mahai horretan, udalek beren lekua izango dute. Beren hizkuntza politikaren bitartez, eskualdeko lan mundua euskalduntzeko prozesua bultzatu eta lagundu behar dute. Lan munduko mahaian funtsezko eragileak izango dira, alde batetik, enpresak euskalduntze proiektuetan murgiltzeko sustapen lana egiteko aukera dutelako, bestetik prozesuak burutzeko baliabideak eta diru-laguntzak esleitzeko aukera ere badutelako eta azkenik gure proiektuan modu zuzenean parte hartuz, lan mundua euskalduntze prozesuari iraunkortasuna eskaintzen diolako.

Lan munduko mahaia kudeatzeko ezinbestekoa izango da Talde eragile bat. Azpitalde honen funtzioak, lan munduko mahaiaren kudeaketa izango da, adostutako neurrien inplementatzea, proiektuen jarraipena egitea, eta mahaiaren barne eta kanpoko informazio eta komunikazio lanari ekitea.

Ez gara zerotik abiatzen, baditugu aurretik euskara planak martxan jarri dituzten enpresak, baita ziurtagiridunak, hauek traktore lana egingo dute enpresa berriak erakarri eta nahi dugun sare hori osatzeko. Sare horren bitartez, enpresen arteko hartu-emanak bultzatuko ditugu, batzuen eta besteen esperientziak elkarren artean trukatu, egoera ezberdinak konpartitu, eta irtenbide bateratuak adostu.

Lan munduaren mahaian erabakiko da zer-nolako programak martxan jarri, nola eragin, zer-nolako medioak erabili baita beharko den finantziazioa eta eskainiko diren diru-laguntzak zehaztu, eta horretarako zer-nolako jarraipena egingo den.

2015eko urtarrilak 26an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKIA

BAKARRA: Ibarra Udalak bat egitea egitasmo honekin.

3. 2 UZTURPE IKASTOLA: MANTENTZE-LANETARAKO DIRU-LAGUNTZA KITAPENA

Ikusita, 221/2014 Alkate Dekretu bidez, 11.000 euro eman zitzaizkiola Uzturpe Irakaskuntza Kooperatibari Egi eraikinaren mantentze-lana eta materiala diruz laguntzeko.

Ikusita, aipatu diru-laguntza ordainketa bakarrean egin zela, baina berori justifikatzeko beharra ezarri zitzaiola

Ikusita, Uzturpek mantentze-lanen eta materialen kitapena egoki aurkeztu duela.

2015eko urtarrilak 26an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea Uzturpe Irakaskuntza Kooperatibak aurkeztu duen kitapena.

3. 3 UZTURPE IKASTOLA: GARRAIORAKO DIRU-LAGUNTZAREN 2. ZATIAREN KITAPENA

Ikusirik, 219/2014 Alkate dekretu bidez, 32.000 euroko diru-laguntza eman zitzaiola Uzturpe Irakaskuntza Kooperatibari ikas garraiorako.

Ikusirik, aipatu dekretuan diru-laguntza bi alditan ordaintzea erabaki zela.

Ikusirik, bigarren orainaldiaren ondoren, Uzturpek egindako gastuak kitatu behar dituela.

Ikusita, kitapena egoki aurkeztu duela, ordainagiri eta banku mugimenduekin.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2015eko urtarrilak 26an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea Uzturpe Irakaskuntza Kooperatibak ikas garraiorako aurkeztutako kitapena.

3. 4 UZTURPE IKASTOLA: ERREFORTZU IRAKASLEAREN KITAPENA

Ikusirik, 2013ko azaroaren 21eko Gobernu Batzordean Uzturpe Irakaskuntza kooperatibari 5.113,25 €ko diru-laguntza eman zitzaiola etorkinen errefortzu irakasleak suposatzen zuen defizitari aurre egiteko.

Ikusirik, lehen ordainketa batean aipatu kopuruaren %60 ordaindu zitzaiola, eta gastu guztien kitapena aurkeztu arte gainerako %40 ez ordaintzeko erabaki zela.

Ikusirik, joan den 2014ko urriaren 2an Uzturpe Irakaskuntza Kooperatibak Errefortzu irakaslearen kitapena aurkeztu zuela.

Ikusirik, kitapenean honako dokumentazioa aurkeztu zuela: langilearen kontratua, nominak, TC2ak, Eusko Jaurlaritzaren diru sarrera eta Memoria.

2015eko urtarrilak 26an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea Uzturpe Ikastolak aurkeztutako kitapena.

BIGARRENA: Ordaintzea dirulaguntzaren bigarren zatia (2.045,30 €).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA: Akordio honen berri ematea kontu hartzailetza arloari eta Uzturpe Ikastolari.

3.5 TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA: 2014KO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA

Ikusirik, joan den uztailaren 22an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean Tolosaldeko Komunikazioa Taldeari 21.000 euroko diru-laguntza ematea adostu zela.

Ikusirik, erabakia hartzearekin batera diru-laguntzaren % 60 ordaindu zitzaiola.

Ikusirik, gainerako %40 kobratu ahal izateko, TOlosaldeko Komunikazio Taldeak diru-laguntzaren kitapena aurkeztu behar zuela.

Ikusita, joan den abenduaren 11an aurkeztu zutela kitapena. Modu egokian.

2015eko urtarrilak 26an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea Tolosaldeko Komunikazio taldeak aurkeztutako kitapena.

BIGARRENA: Ordaintzea dirulaguntzaren bigarren zatia (8.400 €).

HIRUGARRENA: Akordio honen berri ematea kontu hartzailetzari eta Tolosaldeko Komunikazio Taldeari.

3.6 TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA: EUSKARA IKASLEEI URTEKO HARPIDETZA

Ikusita, Tolosaldeko Komunikazio Taldeak euskara ikasten ari diren ibartarrei Tolosaldeko ataria egunkariaren urte beteko harpidetza oparitzeko proposamena egin diola Udalari.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ikusita, aipatu harpidetzak ikasleko 70€ko kostua izango lukeela udalarentzat.

Ikusita, une honetan Aitzol euskategian 15 ibartar ari direla euskara ikasten.

Ikusita, egokia izan daitekeela ikasleentzat etxean euskaraz idatzitako egunkaria jasotzea.

2015eko urtarrilak 26an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Oparitzea euskara ikasten ari diren ibartarrei Tolosaldeko atariaren urtebeteko harpidetza.

BIGARRENA: Ordaintzea Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 1050€ (15 hapide X 70€), 15 ibartarren harpidetzagatik.

HIRUGARRENA: Ordainketa 481.420.00.00 kontu-sailetik ordaintzea.

LAUGARRENA: Akordio honen berri ematea Tolosaldeko Komunikazio Taldeari eta euskara ikasleei.

3.7 TXIRIBITU AISIALDI TALDEA: 2014KO DIRU-LAGUNTZAREN 2. ZATIA

Ikusita, 2014ko abenduaren 30eko data duen 389/2014 alkate dekretu bidez, Txiribitu Aisialdi Taldeari 3.083,07 €ko diru-laguntza esleitu zitzaiola.

Ikusirik, aipatu dekretuan zehaztutako kopurua bi alditan ordaintzea erabaki zela: lehenik %60 eta ondoren %40.

Ikusirik, bigarren zatia kobratu ahal izateko kitapena aurkeztu behar zuela Txiribituk.

Ikusita, joan den 2015ko urtarrilaren 22an kitapena aurkeztu zuela modu egokian.

2015eko urtarrilak 26an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea Txiribitu Aisialdi Taldeak aurkerztutako kitapena.

BIGARRENA: Ordaintzea geratzen zaion diru-laguntzaren %40a

HIRUGARRENA: Akordio honen berri Txiribitu Aisialdi Taldeari ematea. .

3. 8 LOATZO MUSIKA ESKOLA: FOTOKOPIAGAILUA BERRITZEA

Ikusita, Loatzo Musika Eskolaren lokalean dagoen fotokopiagailuak 5 urte baino gehiago dituela, eta berau mantentzeko lanak oso garestiak direla.

Ikusita, udaletxeko gainerakon fotokopiagailuak leasing moduan daudela.

Ikusita, Ricoh etxeak honako 2 proposamen egin dizkigula:

1. Koloretako fotokopiagailua: 60 hilabete, 26,30 €hilabetean gehi BEZ. Kopia bakoitza 0,0612 € koloretan eta 0,0097 €zuri beltzean.
2. Zuri-beltzean: 60 hilabete, 17,30 €hilabetean gehi BEZ. Kopia bakoitza 0,0078€

2015eko urtarrilak 26an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Kontratatzea leasing-ean zuri-beltzeko fotokopiagailua Loatzo Musika Eskolako lokalerako.

3. 9 KORRIKA

Ikusita, 2015ean “Euskahaldun” lelopean Urepeletik Bilborako 19. Korrika izango dela martxoaren 19tik 29ra.

Ikusita, Ibaratik martxoaren 21ean pasako dela goizeko 7:04etan



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2015eko urtarrilak 26an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Ematea 600 €ko diru-laguntza Korrikari.

BIGARRENA: Ordaintzea diru-laguntza 430.335.00.00 kontu sailetik.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontu Hartzailletza sailari eta Korrikari

3. 10 D EREDUKO FESTAK

Ikusita, joan den abenduaren 17an Ibilaldiak-ek diru laguntza eskaera aurkeztu zuela.

Ikusita, 2015ko urtarrilaren 12an Kilometroak-ek diru-laguntza eskaera aurkeztu zuela.

Ikusita, 2015eko urtarrilaren 19an, Herri Urrats-ek diru-laguntza eskaera aurkeztu zuela.

Ikusita, 2014ko abenduaren 16an, Nafarroa Oinez-ek diru-laguntza eskaera aurkeztu zuela.

2015eko urtarrilak 26an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Ematea Kilometroak eta Ibilaldiari bakoitzari 800 €ko diru-laguntza.

BIGARRENA: Ematea Herri Urrats eta Nafarroa Oinez-i bakoitzari 1.000 €ko diru-laguntza.

HIRUGARRENA: Ordaintzea aipatu diru-laguntza guztiak 430.335.00.00 kontu sailetik.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontu Hartzailletza sailari, Kilometroak, Ibilaldiari, Herri Urrats eta Nafarroa Oinez-i

3. 11 INFO7: PUBLIZITATE PROPOSAMENA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ikusita, INFO/ irratia publikitate proposamen bat egin duela: 500€ren truk 5 kanpaina.

2015eko urtarrilak 26an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea INFO7ren proposamena.

BIGARRENA: Erabakitzea lan-taldean 5 kanpainak zeintzuk izango diren.

HIRUGARRENA: Ordaintzea proposamena 226.335.00.03 kontu-sailetik.

LAUGARRENA: Akordio honen berri INFO7ri eta Kontuhartzailetzari ematea.

LAUGARRENA:

4.- IBARRA, AZOKA ETA PIPARRA AZOKAREN 2014 URTEKO GASTUAREN ONARPENA

Urtero legez, 2014ko irailaren 21n Hauspoa Kultur Elkarteak “Ibarra, azoka eta piparra” azoka antolatu zuen Ibarra Udalarekin elkarlanean.

Ibarra Udalak aipaturiko azoka bultzatzeko interesa zuen eta Hauspoa Kultur Elkarteari diru laguntza emateko 11.500 euro aurreikusi zituen 2014ko Aurrekontu Orokorreko 1 0000.430.711.00.00 2014 kontu-sailean.

Kontuan hartuta 2014ko irailaren 9an Ibarra Udalak guztira 10.500 euroko diru laguntza eman ziola Hauspoa Elkarteari, azokaren antolakuntzak sorturiko gastuei aurre egin ahal izateko.

Kontuan hartuta azokaren antolakuntzak guztira 14.595,84 euroko gastua izan zuela, horietatik 623,65 euro Ibarra Udalak bere aldetik ordainduta eta gainerako 13.972,19 euro Hauspoa Elkarteak ordainduta.

Kontuan hartuta Hauspoa Elkarteak azoka antolatzeko guztira 13.620,60 euroko diru laguntza jaso zuela, Ibarra Udalaz gain beste erakunde batzuk ere diruz lagundu baitzioten.

Kontuan hartuta 2014ko irailaren 21ean antolaturiko azokak guztira 351,59 euroko defizita sortu diola Hauspoa Elkarteari.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontuan hartuta Ibarrako Udalari 376,35 euroko soberakina geratu zaiola azoka honi dagokion 1 0000.430.711.00.00 2014 kontu-sailean.

Kontuan hartuta 2014ko azaroaren 3an Hauspoa Kultur Elkarteak azokari dagokion gastuen zuriketa egin zuela eta sortu den defizita murrizteko Ibarrako Udalari 351,59 euroko zenbatekoa bere alde ordaintzea eskatu diola.

Kontuan hartuta 2014ko abenduaren 19an Kultura eta Gazteria teknikariak azokaren likidazioaren inguruan egindako txostena.

Ondorengoa ikusirik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: 2014ko azaroaren 2an Hauspoa Kultur Elkarteak egindako eskaera onartzea eta 351,59 euroko defizitaren zenbatekoa Hauspoa Kultur Elkarteari ordaintzea.

BOSGARRENA

5.- ETXEBERRITXU BASERRIKO JABEEK ESKATURIKO LIZENTZIA

2009ko urriaren 19an Juan Ignacio Amondarain eta Jose Mari Amondarain jaunak beraienak diren lursail batzuen trukatzea egiten dute bere anaia den Angel Maria Amondarain jaunarekin Etxeberritxo baserrira heltzeko bide berri bat egiteko asmoarekin (permuta egitea beharrezkoa zen bide hori egin ahal izateko).

Permuta egin ahal izateko Juan Ignacio Amondarain eta Jose Maria Amondarain jaunak Etxeberritxo Baserrian zuten lursai hau banatu zuten (banaketa lizentzia lortu zutelarik):

- 1.- LAMBERRI BARRUTIA edo ETXEATZEA izeneko landetxetik datorren lursaila, hirurehun eta bederatzi metro karratu eta hamabost dezimetro karratu dituen. Hauek dira mugak: Iparraldean Elorbe baserriaren terrenoak; Mendebaldean banantzen deneko finka; hego eta ekialdean banantzen den eranskinaren gainerakoa (309,15 m²)

Aldi berean, Angel Amondarain jaunak honako lursail hauek banatu zituen Etxeberritxo Baserrian zituen lursailetatik (banaketa lizentziak lortu zituelarik):

- 1.- Lamberri Barrutia edo Etxe Atzea izeneko etxaldeko lur zatia (berrogeita hamasei metro



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

karratu eta berrogeita hamar dezimetro karratuko azalera duena). Hauek dira lurraren mugak: Hego eta ekialdean lursail nagusia eta Ipar nahiz mendebaldetik Lamberri Barrutia edo Etxeatzea etxaldetik datorren terrenoa (56,50 m²)

2.-Illareta izeneko etxaldetik datorren lur zatia (berrehun eta berrogeita hamabi metro karratu eta hirurogeita bost dezimetro karratu). Hauek dira mugak: Ipar eta mendebaldetik lursail nagusia; eki eta hegoaldeetik gurdibidea (252,25 m²)

Banaketak egin ondoren, 2009ko urriak 19an lur sail horien trukatzeari egiten da Pedro Elosegui Bergareche notario jaunak eginiko eskritura bidez (ondorioz Angel Amondarainenak ziren lursailak Juan Ignacio Amondarain eta Jose Maria Amondarain jaunen jabegora pasatzen dira eta alderantziz Juan Ignacio Amondarain eta Jose Maria Amondarain-enak ziren lursailak Angel Amondarainen jabegokoak izatera pasatzen dira).

2010ean proiektu berri bat egiten da eta proiektu horretan Etxeberritxo Baserrira heltzeko bide berria egitea ezeztatzen da eta ondorioz aurreko bidea mantentzea erabakitzen dute. Erabaki honen ondorio nagusia aurretik anaien artean egindako lur sailen trukatzeari dagoeneko ez duela zentzurik bide berria egiteko aukera desagertzen baita.

Guzti hau ikusirik, 2015eko urtarrilaren 22an Juan Ignacio Amondarain, Jose Maria Amondarain eta Angel Amondarain jaunek trukatzeari egin aurretiko egoerara itzuli nahi izanik lur sail hauen banaketa lizentzia eskatzen dute (banaketa formalizatu ondoren lur sail bakoitza dagokion jabeari jabegora erantsiko dituztelarik)

1.- LAMBERRI BARRUTIA edo ETXEATZEA izeneko landetxetik datorren lursaila, hirurehun eta bederatzi metro karratu eta hamabost dezimetro karratu dituen. Hauek dira mugak: Iparraldean Elorbe baserriaren terrenoak; Mendebaldean banantzen deneko finka; hego eta ekialdean banantzen den eranskinaren gainerakoa (309,15 m²). Egun Angel Maria Amondarain Jauregiren jabegoan dagoen lur saila.

2.- Lamberri Barrutia edo Etxe Atzea izeneko etxaldeko lur zatia (berrogeita hamasei metro karratu eta berrogeita hamar dezimetro karratuko azalera duena). Hauek dira lurraren mugak: Hego eta ekialdean lursail nagusia eta Ipar nahiz mendebaldetik Lamberri Barrutia edo Etxeatzea etxaldetik datorren terrenoa (56,50 m²). Egun Juan Ignacio Amondarain eta Jose Maria Amondarain jabekideen jabegoan dagoen lursaila.

3.-Illareta izeneko etxaldetik datorren lur zatia (berrehun eta berrogeita hamabi metro karratu eta hirurogeita bost dezimetro karratu). Hauek dira mugak: Ipar eta mendebaldetik lursail nagusia ; eki eta hegoaldeetik gurdibidea (252,25 m²).). Egun Juan Ignacio Amondarain eta Jose Maria Amondarain jabekideen jabegoan dagoen lursaila.

Udal Arkitektaren txostena eta expediente osoa aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKIA

LEHENENGOA: Ematea Angel Maria Amondarain Jauregui, Juan Ignaciori eta Jose Mari Amondarain Jauregui eskaturiko banantze lizentziak, erabaki honen azalpen zatian zehaztu direnak. Berehala finken eransketa egokia egin beharko da lursail banatu bakoitza dagokion jabearen jabea erantsiz.

BIGARRENGOA: Banantze lizentzia emateko honako baldintza ezinbestekoa ezartzen da: eskatzaileek egiten den lur banantze eta lur erastearen eskrituraren kopia eta honi dagokion jabegoaren erregistroan aurkeztu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko diote Ibarako Udalari. Jabegoaren inskripzioa egin izanaren ziurtagiria aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango, lizentzia onen onarpena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita. Baldintza hau betetzen ez bada, eskatu den banantzea ez egintzat joko da.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Angel Maria Amondarain Jauregui, Juan Ignaciori Amondarain Jauregui eta Jose Mari Amondarain Jauregui jaunei.

SEIGARRENA

6.- DAMASORO PARTZELAREN ZATIKETA ESKATZEA

Aitor Otaegi eta Nekane Lazkano Prieto bertako txerrien ustiategi baten titularrak dira (erregistro zk. 200.42.0.010.058) eta txerritegi ekologikoaren irekitze lizentzia lortu ondoren Damasoro banantzeko eskaera egiten dute berriz, lehenago ukatu egin baitzitzaien.

2/2006 legeak, aurrerantzean LVSU, bere 40.1 art.an xedatzen du gutxieneko lursailaren azpiko lursailak nekazaritza eta lurralde nahiz hirigintza araudiaren arabera soilik banandu daitezkeela ondoko lursail bati lotzeko baldintzarekin.

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Sektoreko Lurralde Planak, 2014 irailaren 16ko 177/2014 dekretuak onartuak, xedatzen du bere zuzentarau orokorreko 11.4 art.an: sortzen den lursailaren azalera haztegi unitate minimoa baino txikiagoko banantzeak baimendu daitezkeela, baldin eta lehendik dagoen ustiategi bati lotzen bazaio.

Eskatzaileek planteatzen dute ustiategitik kanpo dauden lursail batzuk txerritegira lotzea (01-250 katastrodun lursaila, 0,6438 Ha eta 01-287 0,4760H). Horrela, nekazaritza ustiapenari loturiko gutxieneko azalera beteko litzateke, hau da Gipuzkoarako Ha 1. Gipuzkoako lurraldeko gutxieneko haztegi unitatea, uztailaren 8ko 168/1997 dekretuak, EAeko nekazaritza ustiategiak arautzen duena lortzen da horrela.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udal arkitektaren proposamena ikusirik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Aitor Otaegi eta Nekane Lazkano Prietok eginiko banaketa lizentziaren inguruko kontsultari aldeko irizpina ematea. Banaketa lizentzia onartzeko honako baldintza, betebeharrak eta dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

Damasororen 1789 m²ko azalera banantzeko baldintza hauek betetzea:

Txerritegiaren eraikuntza lotuta geldituko da egungo DAMASORO (edo aukeratzen den izena) txerri-nekazaritza ustiatetara ,) 200.42.0.010.058 zk.; eta Jabego Erregistroan ondoko lursail hauek lotuko dira: 01-250 0,6438 Ha duena , 01-287 0,4760Ha dituen eta banandutako Damasororen 1789m²

Banantze lizentzia baldintzatua geldituko eta ezin izango da eman baldin eta interesatuek ez badute aurretik aipatu ditugun lursail guzti horien eranstea egin denaren eskrituraren kopia aurkezten Udalean. Azkenik, banantze lizentzia eman ondoren, hiru hilabeteko epean banantzea formalizatu beharko dute eta ondorioz berau inskribatu beharko dute jabego erregistroan (inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko diote Ibarako Udalari). Baldintza guzti hauek betetzen ez badira banantze lizentziak ez du baliozkotasun juridikorik izango eta ez egintzat joko da.

Berau bideratzeko agiriok aurkeztu beharko dira:

- Banaketa obra handiko lizentzia eskaera, kalteturiko lursail guztien jabeek sinatua.
- Jatorrizko finka eta hortik ateratzen diren lursailak zehazten dituen memoria . Bertan jasoko dira eskrituretako eta katastro-partzelazioan jasotako zehaztapenen argibideak.
- Jabego titulua (horren ezean Jabego Erregistroko ziurtagiria, kaltetutako finken jabari zehaztapenak jasotzen dituen, kargak eta horiek inskribatzeko beharrezko datuak)
- Lursailaren mugak grafiatzen diren planoak , eta bere gaineko hirigintza arloko zehaztapenak; aldameneko lursailen jabeak adieraziko dira.
- Egungo egoeraren planoko baldintza orokor eta eskala berdineko partzelazio planoak.

BIGARRENA: Erabaki honen berri eman interesatuei.

ZAZPIGARRENA

7.- SAN IGNAZIO 15EAN IGOGAILUA JARTZEKO LIZENTZIA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ignacio Antonio Ulacia jn.ak San Inazio 15 z.ko komunitatearen izenean obretako lizentzia eskatu du igogailua jartzeko.

Eskaerarekin batera exekuzio proiektua aurkeztu du 52.346,27€ko aurrekontuarekin.

Udal arkitekturen proposamena ikusirik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: obretako udal lizentzia ematea igogailua jartzeko San Inazio 15 zk.an.

Hauek dira bete behar dituzten baldintza zehatzak:

A) Igogailua jarriz eraikinean sortzen den bolumen berria ez da konputagarria izango etorkizunean eraikuntza horretan egongo den eraikuntza aprobetxamendua kalkulatzeko orduan. Ondorioz, eraikuntza aprobetxamendutik at geldituko da sortzen den bolumen berri honen neurria.

Proiektuan jasotako proposamen eta baldintza teknikoek zortasun bat eratzen dute San Inazio 15 eta 16 zk. artean dagoen lur eremu pribatuan. Zortasun hau mantenduko da igogailua kentzen ez den bitartean.

Eraikina ordeztuko balitz edo berrikuntza integrala egin bertan, eraikin berriak, proiektu honen aurretik indarrean dauden hirigintza arloko aurreikuspen teknikoak bete beharko lituzke.

B) Ekainaren 26ko 112/2012 dekretuak, autonomia mailako eraikuntza eta eraispin hondakinen kudeaketa arautzen duenak, 5 art.an ezarritakoari jarraiki fidantza bat ezarriko da hondakin horien kudeaketa egokia bermatu ahal izateko. Fidantza 140,48€ izango da, hau da eraikuntza eta eraispin hondakinen kudeaketa kostuaren, hau da 117,07€en gaineko % 120.

C) Tasak eta EIOZ zergak aplikatzeko, obrak gauzatzeko aurrekontuak agertzen duen, 52.346,27€ko balioa kontutan hartuko da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Bidalitako ofizioan daude jasota obra mota hauentzako baldintza orokorrak.

ZORTZIGARRENA
SAN BARTOLOME PLAZAKO ESTALKIAREN ERAIKITZEA EGITEKO OBRAREN
ESLEIPENAREN PLEGU ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ONARPENA

Udal Arkitektak, San Bartolome plazako estalkiaren eraikitzea egiteko obraren esleipenaren plegu administratibo eta teknikoak aurkezten dizkio Tokiko Gobernu Batzordeari.

San Bartolome plazako estalkiaren eraikitzea egiteko obraren esleipenaren plegu administratibo eta teknikoak aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea San Bartolome plazako estalkiaren eraikitzea egiteko obraren esleipenaren plegu administratibo eta teknikoak

BIGARRENA: Lehiaketa deialdia egitea, prozedura negoziatu bidez, eta ohiko izapidearekin, Ibarra San Bartolome plazako estalkiaren eraikitzea egiteko obraren esleitzeko. Horrekin batera dagokion gastua ere onartzea.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Aldizakari Ofizialean iragarkia jartzea eta kontratazio profileen argitaratzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari eta pertsonal saileko administrariari.

I.ERANSKINA

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA; OBRAK PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ KONTRATATZEA: IBARRAKO SAN BARTOLOME PLAZAKO ESTALKIA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontratuaren xedea hau da: IBARRAKO SAN BARTOLOME PLAZAKO ESTALKIA EGITEKO lanak kontratatzea, Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorritz egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2. OBRAK BURUTZEKO EPEA

Zuinketa-akta 2015eko maiatzaren 6 baino lehen egin beharko da. Obrak guztiz bukatuta egon beharko dira 2015eko ekainaren 17rako.

Kontratu honen xede diren obrak burutzeko epea 42 egunekoa izango da, obrak hasi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (zuinketa aktaren sinadura eguna) nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

Kontratistak exekuzio epe laburragoa eskain dezake edo obrak hasi eta amaitu jarritako epea baino lehen.

Obrak epe horretan amaitzen ez badira, kontratistak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die,

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua hau da: EHUN ETA HIROROGEITA BI MILA ETA BOSTEHUN EURO (162.500,00€) gehi %21eko BEZ-ari dagozkion HOGEITA HAMALAU MILA EHUN ETA HOGEITA BOST EURO (34.125,00€),

[Guztira, BEZ barne, ehun eta laurogeita hamasei mila seiehun eta hogeita bost € 196.625]

Lizitatuzaileek aurrekontu hori hobetu dezakete.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Lizitatuzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu, Administrazioarenak oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina lizitatuzailearen prezio-proposamenean jasotako beherako portzentajea kenduta.

4. FINANTZABIDEAK

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarriko da 2014-2015 ekitaldiko aurrekontuan.

Kontratua 2014 eta 2015 ekitaldietako aurrekontuko 1 000.601.153.30.00 partidatik ordainduko da. Urte anitzeko gastua zianik, Udaltzarak hartuko du dagokion erabakia eta ekitaldi bakoitzean izendatu beharreko zenbatekoak.



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

2014ko Aurrekontu Orokorrak aurrekontu kontsignazio hau du: 62.634,39€

2015eko apirileko udalbatzak onartuko ditu 21.990,61€

5. NOLA ORDAINDU

Obra burutuak, lanaldiaren epeari erreparatuta, azkena eta bakarra izango den zertifikazioarekin ordainduko dira, zertifikazio hau udal arkitektoak onetsi beharko du, bera izango baita lanen zuzendaria obrak dirauen bitartean.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea,

7. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5a izango da, BEZa kenduta.

Berme hori jartzeko epea esleipenaren jakinarazpenean adierazitakoa izango da eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan azaltzen diren etatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabil daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatuzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, bere aldeko esleipena ez da burutuko.

Berme-epea amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratu hau burutu ahal izateko, gizarte- edota ingurumen-alorreko baldintza berezi hauek bete beharko dira derrigorrez:

HIZKUNTZ IRIZPIDEAK

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jarduerak guztietan; era berean, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan hizkuntzaren arabera izango dira.

Errotuluak, oharra, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezua ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena:

Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko (SPKLTB) 52 eta 222 artikulua jarraiki:

Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen-euskarriak erabilia, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

Baldintza horiek kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz, SPKLTBaren 118.2. artikulua araberak, baldintza horiek ez betetzeak kontratua etetea eragin dezake, 223.f) artikuluan adierazi bezala.

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 231. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: agiri honetan ezarritako baldintzak; baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bateratuan eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienez arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Obrak burutzen diren bitartean, kontratistaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLTBaren 107 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

Aipatu Legearen 234.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak Administrazioak zehaztuko ditu. Kontratistak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

12. OBRAK HARTZEA ETA BERME EPEA

Obrak amaitu eta, gehienez, hogeit hamar egun pasa baino lehen, obrak esleitzaileren esku utziko dira eta egintza horren akta egingo da.

Gainera, BI URTEko epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, kontratistak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, kontratistak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrak esleitzaileren esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, kontratistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

Berme hauez gain, indarrean egongo dira legez *LOE Ley de la Ordenación de la Edificación* azaroaren 5eko 38/1999 Legean ezartzen direnak.

13. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 2 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

Lanak garaiz burutu ez izanagatiko zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA

Kontratastak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

C. KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 237. artikuluetan azaltzen direnak izango dira. Baita baldintza agiri honetako 8 atalean zehazturikoak ere.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

16. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena negoziazio bidez egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 169.etik 178. artikulura ezarritakoarekin bat etorritik, testu horren 171.d) artikuluan jasotako kasua baita.

Negoiazio gai izango dira:

Prezioa: 55 puntu gehienez.

Proposamen merkeenari 80 puntu emango zaizkio, eta gainontzekoei hiruko erregela aplikatuko zaie.

Epea: 25 puntu gehienez.

Obrak amaitzeko epea (2015/06/17) laburtzen duenari 25 puntu emango zaizkio, eta gainontzekoei hiruko erregela aplikatuko zaie.

Hobekuntzak: 20 puntu gehienez

Obrak irauten duen bitarteak bizilagunei eragozpenik ez sortzeko hobekuntzak aurkezteagatik, baita itxitura materialak aldatzeko aukera, diseinu hobekuntzak edo bestelakoak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 18.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA PARTE HARTZAILEEKIN NEGOZIATZEA

Kontratazio honen espedienteak, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoak ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da: **LEKUA:** Hirigintza departamentua **ORDUAK:** 9:00 - 13:30 **EPEA:** Egun baliogunetan, gonbidapen-idazkian adierazitako parte hartzeke eskabideak aurkezteke epea bukatu arte.

Gonbidatutako enpresek kartazal bakarrik aurkeztu beharko dute. Kartazalean honako hau idatziko da: "IBARRAKO SAN BARTOLOME PLAZAN ESTALKI BERRIA JARTZEKO OBRAK KONTRATATZEKO NEGOZIAZIO BIDEZKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA". Hona hemen kartazalean aurkeztu beharreke agiriak:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea aurkeztuko da eta erakunde honek askietsiko du kartazal horretan aurkeztutako agiriaren sailkapen-prozesuan.

b) Lizitatzalea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteke gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzalearen jardura zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Bestelako enpresari atzerritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurralde-eremuko Kontsul Bulegoaren txostenaren bidez frogatuko da.

c) Eskaintzaileak erantzukizunpeko berariazko aitordpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitatzailleak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Lizitatzaillearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 75.1 artikuluko a) letran eta 76. artikuluko a) letran ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.

Goian aipatutako bitartekoak direla eta, kontratu hau burutzeko enpresek behar dituzten gutxieneko kaudimen-baldintzak hauek dira:

Gaitasun teknikoa frogatzeko:

1.- Azken 5 urteetan egin diren antzeko lanen zerrenda, ondo egin izanaren ziurtagiriak bermatuta, ziurtagirietan obraren zenbatekoa, datak eta lanak egin diren tokiak jaso beharko dira.

2.- Kontratuan parte hartuko duten teknikarien edo unitate teknikoen aipamena, enpresakoak izan edo ez, bereziki kalitatearen kontrolaz arduratzen direnean, dagokion ziurtagiriak aurkeztuz.

3.- Obra burutzeko erabilgarri izango diren material, tresneria eta ekipo teknikoak jasotzen dituen adierazpen sinatua, dagokion ziurtagiriak aurkeztuz.

Gaitasun ekonomikoa frogatzeko hori adierazten duen finantza entitate baten txostena edo arrisku profesionalengandik kalte ordainei aurre egiteko aseguru bat edukitzearen egiaztagiria nahikoa izango da.

f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatuta ahal izateko.



g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, kontratistari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

h) Prozedura horren ondorioz sortzen diren jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa, SPKLTBaren 151.4 legean xedatutakoaren arabera.

i) Proposatutako egituraren planoak: Lehiaketa faserako lizitatuak proposamena ulergarria egingo duten planoak (oinplanoa, altxaerak eta ebaketak) aurkeztu beharko ditu soilik, aurrekontuarekin batera. Egituraren kalkulua lizitatuak bere gain hartuko du, eta gonbidapenarekin batera doazen geometria ezaugarrietara moldatu beharko du bere proposamena. Xehetasunak eta egiturak Eraikuntzaren Kode Teknikoak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duten kalkuluak esleipendunak kontratua sinatzen duenetik hilabete bateko epean aurkeztu beharko ditu. Alabaina, horretarako dokumentazio zehatzik aurkeztu beharko ez badu ere, aurkeztutako proposamenak Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritako baldintzak (egituraren egonkortasuna eta suteen aurkako neurriei dagozkien baldintzak) betetzen dituela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko du lizitatuak. Ondoren esleipendunak bere gain hartu beharko ditu indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik egin beharko lituzkeen aldaketak.

j) Hobekuntza proposamenak.

k) I. Eranskinean xedatutako ereduaren arabeko diru-proposamena.

Baldintza honetako a), b), c), d), e), f) eta g) puntuetan zehaztutako dokumentaziorik gabe aurkeztu daitezke proposamenak, baina kasu horretan, esleipendunak kontratua formalizatu aurretik aurkeztuko ditu.

Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Lizitatuak eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLTBaren 84. artikulua xedatutakoaren arabera. Aipatu ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen lizitatuaren ardura adierazpena ere gehitu beharko da.

Aurreko atalean aipatutako ziurtapena elektronikoki eman daiteke

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatu edo egiaztatu behar ditu. Aipatu agiriak fotokopia hutsean ere aurkez daitezke baina, kasu horretan, kontratuaren esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, fotokopia horiek benetakoak direla erakutsiko du jatorrizkoak emanez.



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

Lizitatuzaileek proposamenak burutzeko duten epe guztian zehar hirigintza saileko zerbitzu teknikoekin harremanetan jartzeko aukera izango dute, sortu dakieken edozein zalantza argitzeko. Argibide hauek 943 697321 telefono zenbakira deituta, nahiz e-mail bidez hirigintza@ibarra.eus helbidera idatzita lortu ahalko dira.

19. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, proposamenen kartazalak irekiko dira, aurkeztutako agiriak aztertuko dira eta bertan antzeman ditzaketen akats edo gabeziak zuzentzeko epea emateko aukera izango da. Hala, aipatu agiriak onartzen direnean, hala badagokio, kontratuaren xedeari lotutako beste edozein alderdi ekonomiko, tekniko edota logistiko negoziatzen hasiko da.

Negoiazioa amaitzean, baldintzak aldatzeko konpromisoa hartu dutenek azken eskaintza aurkeztu beharko dute, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena zein den balioetsi eta hautatzeko. Espedientea kontratazio-organoari bidaliko zaio kontratuaren esleipena egiteko eta bertan zehaztu eta finkatuko dira kontratuaren behin betiko xedapenak.

Esleipena bi elementuk baldintzatuko dute: esleipendunak berariaz bidali zaion jakinarazpenean zehaztutako ekintzak burutzea eta kontratua formalizatzea.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezingo den 15 egun baliodun baino gehiagokoa izan, esleipendunak honakoak egingo ditu:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea edo kontratazio-organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzena lortzeko baimena ematea. Ez da beharrezkoa izango agiri horiek berriz ere aurkeztea proposamenarekin batera aurkeztu baditu.
- b) Kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko agiria aurkeztea, baldintza-agiri honen 18. klausulako e) letraren arabera.
- c) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztapena aurkeztea.
- d) Jatorrizko agiriak aurkeztea, proposamena osatzen duen kartazalean fotokopia hutsak aurkeztu badira.
- e) Baldintza-agiri honetan eskatu eta aurkeztu ez diren beste agiri batzuk aurkeztea.
- f) Administrazio honen bulegoetara etortzea, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Azkenik, formalizazio-dokumentuan jasotzen den epearen barruan (sinatu eta gehienez hilabetera), esleipendunak egituraren xehetasun planoak eta Kode Teknikoaren araudia betetzen dela ziurtatzen duten kalkuluak aurkeztuko ditu. Era berean, kontratua sinatzean emango zaion Segurtasun eta Osasunerako Azterlanaren arabera Segurtasunerako Plana burutu beharko du, Plan hau hilabeteko epe horren baitan aurkeztu beharko duelarik Udalak onar dezan, Segurtasunerako koordinazio lanak udal arkitektoak burutuko dituelako. Zuinketaren egiaztapena eta dagokion aktaren izenpetzea derrigorrez 2015eko maiatzaren 6a baino lehen edo egun horretan egingo dira. Une horretatik aurrera, kontratuaren exekuzio-epea kontatzen hasiko da.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

20. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoen arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak onartzen duen, azaroaren 14ko, 3/2011 legegintzako Errege Dekretu ; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 EDLaren aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

21. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLTBaren Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

22. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebaztuko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren biderei amaiera emango diote, hala badagokio, SPKLTBaren 40. artikulutik 49. artikulura xedatutakoaren arabera, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako edozein artikuluren arabera, kontratazioaren alorrean errekurtsio berezia jartzeko aukeraren aurka egin gabe.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BEDEDARITZIGARRENA

9.- 2015EKO OTSAILAREN 10EAN BURUTURIKO OBRA ETA ZERBITZUETAKO BATZORDEKO AKTAREN INGURUKO ERABAKIAK ONARTU

9.1 OBRA TXIKIKO BAIMENA SAN INAZIO 6 ERAIKINEKO TEILTUAN KONPONKETAK EGITEKO

Ikusi da Josefa Manso Martinek, San Inazio 6ko jabekideek izenean eginiko obra txikiko lizentzia eskaera, eraikinaren teiltuan konponketak egiteko.

Obraren aurrekontua 1.946,40 € da (BEZ gabe).

2015eko otsailaren 10ean buruturiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Ematea San Inazio 6ko jabekideei udal lizentzia eta baldintzok beteko ditu:

- Beharrezko gertatzen diren segurtasun neurriak hartu beharko dira eta horren ezarpena segurtasun gaietan indarrean dauden arauetan xedatuei jarraiki egingo da, bereziki Urriaren 24ko 1627/1997 Erret Dekretua, eraikuntza lanetan gorde behar diren segurtasun eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen eta 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- Bide publikoa okupatuko duten edozein elementuek udal tasak izango dituzte. Bide publikoa okupatu behar bada, obra hasi baino lehen, bide publikoa okupatzeko lizentzia eskatu beharko da udaletxe honetan. Eskieran, zein elementu jarriko diren, okupatuko duten azalera eta okupazioaren iraupena azalduko dira.
- Debekatuta dago zaborrak udal edukiontzietara botatzea.
- Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen kudeaketa arautzen duen otsailak 1eko 105/2008 Errege Dekretuak dioena bete beharko da.

BIGARRENA: Erabaki hau Josefa Manso Martini jakinaraztea.

9.2 OBRA TXIKIKO BAIMENA EGIALDE 17AN ARKUPEA ERABERRITU ETA HANDITZEKO



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ikusi da Ignacio Hernaez Aranzabalek eginiko obra txikiko lizentzia eskaera Egialde 17 etxean sarrerako arkupea eraberritu eta handitzeko.

Obraren aurrekontu orokorra 2.620 €koa da (BEZ gabe).

2015eko otsailaren 10ean buruturiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Ematea Ignacio Hernaez Aranzabali udal lizentzia eta baldintzok beteko ditu:

- Beharrezko gertatzen diren segurtasun neurriak hartu beharko dira eta horren ezarpena segurtasun gaietan indarrean dauden arauetan xedatuei jarraiki egingo da, bereziki Urriaren 24ko 1627/1997 Erret Dekretua, eraikuntza lanetan gorde behar diren segurtasun eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen eta 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- Bide publikoa okupatuko duten edozein elementuek udal tasak izango dituzte. Bide publikoa okupatu behar bada, obra hasi baino lehen, bide publikoa okupatzeko lizentzia eskatu beharko da udaletxe honetan. Eskaeran, zein elementu jarriko diren, okupatuko duten azalera eta okupazioaren iraupena azalduko dira.
- Debekatuta dago zaborrak udal edukiontzietara botatzea.
- Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketa arautzen duen otsailak 1eko 105/2008 Errege Dekretuak dioena bete beharko da.

BIGARRENA: Erabaki hau Ignacio Hernaez Aranzabali jakinaraztea.

9.3 TARTE-REKIN UDALETXEKO ETA POLIKIROLDEGIKO GALDAREN MANTENTZE-KONTRATUA BERRITZEA

Ikusirik 2014ko azaroaren 11an Ibarako Udalak TARTE S.L. enpresaren proposamena jaso zuela udaletxe eta polikiroldegiko galdaren mantentze-kontratua berritzeko 2015. urterako.

Ikusirik TARTE S.L. enpresak 2014ko prezioak mantentzen dituela igoerarik gabe.

Aurrekontuak eraikin bakoitzeko honakoak dira (BEZ barne):

Udaletxea.....1.311,37 €
Polikiroldegia.....1.985,86 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Gastu hori udaleko 2015ko aurrekontu orokorretik egingo da, eraikin bakoitzari dagokion instalakuntzen mantenuaren partidatik.

2015eko otsailaren 10ean buruturiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: TARTE S.L. enpresari berritzea udaletxeko eta polikiroldegiko eta Uzturpe ikastolako galdaren mantentze-kontratua 2015. urterako honako prezioan:

Udaletxea.....1.311,37 €
Polikiroldegia.....1.985,86 €

BIGARRENA: Proposamen hau jakinaraztea TARTE S.L. enpresari.

HIRUGARRENA: Proposamen honen berri ematea Kontuhartzailletza sailari.

9.4 AZKUE 3,4 ETA 5EAN UDALAK DITUEN LARRIALDIETARAKO ETXEBIZITZETAKO GALDAREN MANTENTZE-KONTRATUA EGITEA

Azkue 3,4 eta 5en udalak dituen larrialdirako etxebizitzek ez dute galdararen mantentze-kontraturik. Zerbitzu Ofizial Teknikoa eskaintzen duen enpresari, Reparaciones Urrutiri, eskatu zaio aurrekontua zerbitzu hori emateko oso garrantzitsu baita galdarak mantentzea istripuak ekiditeko. Kontratuaren baldintzak honakoak izango lirateke:

- Ikuskapen bat urtean.
- Matxurarik izanez gero, eskulana eta joan-etorria barne. Piezak ez daude barne.
- Etxebizitza bakoitzeko 67,77 € + BEZ, guztira hiru etxebizitzeko 246 €

2015eko otsailaren 10ean buruturiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: REPARACIONES URRUTI enpresarekin egitea Azkue 3, 4, eta 5eko 1. B etxebizitzetako galdaren mantentze-kontratua 2015. Urterako, guztira 246 €tan. 1 0000.221.231.41.00.2015 partidatik finantzatuko litzateke gastu hau

BIGARRENA: Proposamen hau jakinaraztea REPARACIONES URRUTI enpresari.

HIRUGARRENA: Proposamen honen berri ematea Kontuhartzailletza sailari.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

9.5 POLIKIROLDEGIAN ETA IKASTOLAN PLAGEN KONTROLA EGITEKO 2015 URTERAKO KONTRATUA BERRITZEA ANTICIMEZ ENPRESAREKIN

Ikusirik 2015eko otsailaren 4an Ibarra Udalak ANTICIMEX enpresaren proposamena jaso zuela polikiroldegiano eta Uzturpe ikastolan plagen kontrola egiteko kontratua berritzeko 2015 urterako.

Ikusirik ANTICIMEX enpresak 2014ko prezioak mantentzen dituela igoserarik gabe.

Eskainitako zerbitzuak eta aurrekontuak eraikin bakoitzeko honakoak dira (BEZ barne):

1. POLIKIROLDEGIA

- Garbiketa-desinfekzioa legionellaren aurka.....urtean behin (uztaila)
- Analsi mikrobiologikoa legionella.....Urtean bitan (urtarrila eta uztaila)
- Jakuzziaren analsia.....Hilero

Guztira 2.426,47 € BEZ barne.

- Desinsektazioa eta desratizazioa, urtean hirutan.....235,82 € BEZ barne.

2015eko otsailaren 10ean buruturiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: ANTICIMEX enpresari berritzea polikiroldegiko eta Uzturpe ikastolako plagen kontrola egiteko kontratua 2015 urterako honako prezioetan:

Kiroldegia.....legionella eta jakuzzia.....2.426,47 € BEZ barne
Kiroldegia.....desinsektazio-desratizazioa.....353,72 € BEZ barne

BIGARRENA: Proposamen hau jakinaraztea ANTICIMEX enpresari.

HIRUGARRENA: Proposamen honen berri ematea Kontuhartzailletza sailari.

9.6 HIRIGINTZAKO BULEGORAKO MATERIALA

Hirigintzako bulegorako inpresora jartzeko mahai txiki baten beharra eta beste hainbat materialen beharra ikusi dugu. Montteri eskatu zaio aurrekontua eta honakoa da:

- Inpresora jartzeko mahai txikia.....202,00 €



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

- Karpitetan jartzeko etiketak, 10 poltsa.....20,70 €
- CDak gordetzeko 2 kartera.....18,02 €
- Paretan jartzeko 3 kortxo (hirigintza, obrak, ingurugiro).....44,88 €
- Pertxero metalikoa 3 zintzilikario.....19,37 €

GUZTIRA.....304,97 €

%21 BEZ.....64,04 €

369,01 €

2015eko otsailaren 10ean buruturiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea Montteren aurrekontua 369,01 €koa.

BIGARRENA: Proposamen honen berri ematea Kontuhartzailletza sailari.

HAMARGARRENA

ONDAREZKO ERANTZUNKIZUNA FERNANDA LOPEZ HURTADO ANDREA.

2014ko urtarrilaren 26an, Fernanda Lopez Hurtado andrea Ibaigain 2-4 atzealdeko arrapatatik behera zihola irristatu eta lurrera erori zen. Ondorioz eskumuturra apurtu zuen eta 2014ko otsailaren 19an 336 erregistro zenbakiarekin idatzi bat aurkeztu zuen ondarezko erantzukina eskatuz Ibarra Udalarari (idazki honetan ez zuen kaltea baloratu).

2014ko abenduaren 1an, 2273 erregistro zenbakiarekin Fernanda Lopez Hurtado andreak ondarezko erantzukizuna eskaera aukertu zuen Ibarra Udalean. Bertan, 34.121,26 eurotako kalte ordaina eskatzen du.

Ondarezko erantzukizun eskaeraren oinarria honakoa da:

- 1.- 2014ko urtarrilaren 26an goizeko 2:30etan Ibaigain 2-4 zenbakiko arrapalan erori eta eskumuturra hautsi zuen. Gauean euria egin zuen eta ondorioz lurra bustirik zegoen eta arrapala berri hau irristakor aurkitzen zela. Bestalde, ez zegoen inolako irristakortasuna gutxitzeko sistemarik ez eta beste inolako irtenbiderik irristakortasun arazo hau ekiditeko. Aipatzen du arrapala ezarri aurretik eskailera batzuk zeudela eta Udalak aldebakarreko erabakia harturik eskailera kendu zituen.



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

2.- Udalak erantzunkizuna du istripu honetan eta sortu diren kalteetan. Alde batetik lurra irristakorra zegoen eta ez zegoen irristakortasuna ekiditeko sistemarik. Bestalde aurretik zeuden

eskailerak kendu zirenez ez dago beste aukerarik eta derrigorrez arrapala erabili behar da. Ez zegoen inolako zeinu edo arrisku adierazgaririk ezarrita.

3.- Ospitalera eraman zuten urgentziaz eta eskubiko eskumuturra hautsita zuela diagnostikatu zioten.

Udaleko Arkitekta teknikoan 2014ko maiatzaren 26an txosten bat aurkezten du. Txosten honetan honakoa aipatzen da:

“Arrapalak 2,80 mko zabalera du eta baranda ere badu. Irristakor dagoen zatiak 70 cmko zablara du, jendeak gehien erabiltzen duen zatia hain zuzen. Euria ari zuen egun batean bertaratu eta 70 cmko zati hori (argazkia aurkezten du) irristakor zegoela ikusi nuen, baina herriko espaloi askotan gertatzen den bezala. Gainontzeko azalera, argazkian ilunago eta zikinago ikusten dena ez dago irristakor. Aipatu oinetakoen arabera ere, irristakortasuna desberdina izaten dela. Esan udalak, ahal duen neurrian, mantentze lanak egiten dituela espaloietan”

Idazkaritzatik honakoa aipatzen da aukezturiko dokumentazioaren inguruan:

1.- Maria Fernanda Lopez Hurtado andreak 2014ko urtarrilaren 26an (goizeko 3:46 etan) urgentzietan egon denaren ziurtagiria aurkezten du (Mercedes Dendaluce Izaguirre medikuaren txostenean agertzen den bezala) baina ez du beste inolako ziurtagiri edo frogarik aurkezten non egiaztatzen den benetan IbaiGain 2-4 arrapalan erori dela. Ez du ez testiguen testigantzarik, ez eta ertzaintzaren parterik, ez eta anbulantzia bertaratu izan denaren ziurtagiririk aurkezten. Ondorioz ez da frogaturik gelditzen benetan esaten duen lekuan erori denik eta ondorioz erantzunkizuna Ibarako Udalari ezin dio egotzi. Kausalitate erlazioa frogatu behar da, hau da, jasan den kaltea benetan jasan dela (hau frogatua geratzen da) eta erortze horren ondorio zuzena dela kalte hori. Baina erori dela frogatu beharko luke eta istripua benetan aipatzen duen lekuan gertatu dela frogatzeke gelditzen dela uste du Idazkariak. Froga horren karga berari dagokio eta hori frogatu bitartean kalte ordainaren azterketa egitea ez duela zentzurik uste du Idazkariak.

Udal Arkitekta teknikoaren txostena aztertu ondoren eta Udal Idazkariaren iritzia kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Ez onartzea 2014ko abenduaren 1an, 2273 erregistro zenbakiarekin Fernanda Lopez Hurtado andreak aurkezturiko ondarezko erantzunkizunaren eskaria (34.121,26 eurotako kalte ordaina eskatzen duena), Ibarako Udalak ulertzen baitu ez dela frogaturik geratzen kausalitate lotura (nexo causal) dagoenik (kaltea ez da garbi geratzen nola sortu den). Berak jasandako kalte



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

horiek Ibaigain 2-4 arrapalan erortzeagatik sortuak direnaren frogarik ez baita aurkezten eta ondorioz beste edozein egoeragatik sortu izan bait daizke.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Juan Redondo Ania abokatu jaunari Santutxu kalea 15 behe oina 48004 BILBAO

GALDERA ETA ESKAERAK

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko ordubiak direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.